

# BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresaren ideia kafetegi begano bat da eta bertan karaokea izango du. Getxon, kokatuko dugu, Gobela metro geltokiaren ondoko urbanizazioan kokatuta dago; 300m<sup>2</sup>-ko lokala da eta 720€ hileroko kostatuko zaigu. Lokalak ez dauka ez barrarik ezta ezer ere ez eta 2.000€ko erreforma egingo dugu. Kafetegian karaoke eta teklatu bat bat egongo dira, non adin guztietako pertsonak erabili ahal izango duten. Kafetegiaren ordutegia 7:30-tatik 23:00-tarako da igandeetatik ostegunetara eta 8:00-tatik 03:00-tarako da ostiraletan eta larunbatetan.

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak adin guztietako pertsonak izango dira baina bezero gehienak nerabeak eta 20-35 urteko pertsonak izango dira, urte horien bitartekoak normalean mota honetako kafetegietara joaten direlako.

Karaoke gauetan adin nagusietako pertsonentzat ere erakargarria izan liteke, haien garaiko abestiak interpretatzeko eta entzuteko esparrua izango luketelako, eta adin nagusiez aparte herriko txikitxoak karaokeaz ere gozatu dezakete, arratsaldeetan haienezako ekintzak ditugulako.

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure bezeroak adin guztietako pertsonak izango dira, baina gehienak familiak (umeekin) eta pertsona helduak. Bezero hauek behar ditugu beraientzat ekintzak ditugulako eta kafetegi batean ohikoak diren bezeroak adin horietako pertsonak direlako.

- Adriana → Dekorazioaz arduratuko da.
- Martín → Karaokearen arloaz arduratuko da.
- Yoel →
- Uxue → Kontabilitateaz eta saltzen ditugun produktuei prezioak jarriko dizkio.
- Unai → Enpresaren antolaketaz arduratuko da. Mahaiak zein zenbaki duten eta nola zerbitzatu behar den.

Hornitzaile hauek behar ditugu produktuak lortzeko:

- Hornitzaileak:
  - Guk geuk, gure ortutik → Barazkiak freskoak edukitzeko gure ortutik hartuko ditugu.
  - Makro → Gure produktuak egiteko material batzuk edukitzeko, kasu honetan janari beganoa erosteko.
  - KITU Snack → Snack beganoak edukitzeko pintxo batzuk bezala edukitzeko behar dugu hornitzaile hau.
  - Acebuche → Makron erosi ezin ditugun produktuak erosteko.
  - Coca-cola → Edariak erosteko eta terrazako mahai, aulki, edaluntzi... patrozinatzeko.

# DIRU SARRERAK

- Hasteko behar den diru kantitatea 30.720€-koa gutxi gora behera da eta horrela dago banatuta:

- ❖ Guztion artean 15.000€ ditugu
  - Adrianak→5.000€ jarri ditu
  - Yoelek→2.000€ jarri ditu
  - Unaik→ 1.500€ jarri ditu
  - Martínek→ 2.500€ jarri ditu
  - Uxuek→ 4.000€ jarri ditu

- Bankuari 15.720€-ko mailegua eskatu behar diogu

Produktuen prezioak honako hauek izango dira eta produktuak guk-geuk egingo ditugu, ez ditugu eginda erosiko.

- PREZIOAK

- Goizeko prezioak (Kafetegian)

- Kafeak→ 1,50€
- Magdalenak→ 2€
- Tarta gehienak beganoak baina gutxi batzuk normalak→ 2,50€
- Gaileta beganoa eta normalak→ 1€
- Tortilla beganoa pintxoak→ 2€
- Sandwicha beganoak→ 5€
- Teak→ 1,50€
- Garagardoa→ 2€
- Ardoa→ 2,50€
- Olibak→ 1,50€

- Gaueko prezioak (karaokean)

- Gin tonic→ 6€
- Mojito→ 10€
- Cosmopolitan→ 6,50€
- Margarita→ 7€
- Martini→ 6€
- Mai Tai→6€
- Caipirinha→7€

- Daiquiri→ 7,50€
- Piña colada→ 5,50€
- White russian→ 8€

# BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

-Kartelak jarriko dugu kaletik kafetegia ezagutzera emateko (faroletan, autobus geltokietan, txosten batzuk utziko ditugu postontzian...)

-Euskadi Irratiari ordainduko diogu kafetegiari buruz hitz egiteko (programa baten bitartean gure kafetegia aipatzea)

-Yoel jarriko da *croissant* jantzi batekin kalean folletoak ematen.

-Interneten iragarki batzuk igoko ditugu (instagramen, facebooken, twitterren...), pertsona gehiago gure enpresa ezagutzeko.

-Egunkarian iragarkia jarriko dugu, Internet ez daukaten pertsonak guk nortzuk garen jakiteko kostea 3.800,00€ -koa da El Día egunkarian, horri bikoiti batean egotea erabaki dugu eta aste oso batean egunkarian agertuko da (prentsa fisikoa), prentsa digitalean "Billboard"-n 112,00€-ko balioa dauka egun baterako.

# BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure harremana bezeroekin pertsonala izango da. Web-orrialdea izango dugu ere, baina ez du balio izango bezeroekiko harreman estua lortzeko metodoa izango.

Karaoke gauetan ere, bezeroekiko harremanak hobetzeko balioko zaizkigu, eta hainbat ekintza gehiago ere erabiliko ditugu helburu hau lortzeko. Kontzertu gauak ere noizbaitero egingo ditugu, eta bezeroak erakartzeko balioko zaigu.

Autozerbitzurako aukerarik ez dugu ikusten baliogarri moduan, uste baitugu harreman pertsonala hobeagoa izango delako bezeroekin komunikatzeko.

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera eramateko esperientzia duten zerbitzari batzuk kontratatuko ditugu, sukaldean egongo den gutariko bat kafetegia zabaldu baino lehen sukaldatze klase batzuk artuko ditu gero istripurik ez egoteko. Kontabilitatean abilezia duen pertsona bat egongo da, enpresak galerak ez izateko (pertsona hori zenbakiekin ondo konpondu behar da eta pazientzia handia eduki behar du kontuak ateratzen dituen bitartean larri ez jartzeko).



# FUNTSEZKO JARDUERAK

- Egingo ditugun ekintzak bezeroak erakartzeko honako hauek izango dira:
  - GOIZETAN→
    - Karaoke librean norbaitek nahi badu
  - ARRATSALDEEETAN→
    - Umeentzat kontzertuak eta karaokea (Parke baten ondoan kokatuta gaude)
  - GAUETAN→
    - Kontzerturen bat emango dugu bezeroek disfrutatu dezaten
    - Karaoke konkurtsoak (4 pertsonetako taldeak egongo dira eta haien artean lehiatuko dira; talde 2 egon behar dira gutxienez eta ez dago talde kopuru maximoa)
- PUBLIZITATEA→
  - Kartelak jarriko dugu kaletik kafetegia ezagutzera emateko (faroletan, autobus geltokietan, txosten batzuk utziko ditugu postontzian...)
  - Euskadi Irratiari ordainduko diogu kafetegiari buruz hitz egiteko (programa baten bitartean gure kafetegia aipatzea)
  - Yoel jarriko da *croissant* jantzi batekin kalean folletoak ematen.
  - Interneten iragarki batzuk igoko ditugu (instagramen, facebooken, twitterren...), pertsona gehiago gure enpresa ezagutzeko.
  - Egunkarian iragarkia jarriko dugu, Internet ez daukaten pertsonen guk nortzuk garen jakiteko (Deia, El correo...) Kostea -koa da eta horri bikoiti batean egotea erabaki dugu.
- BESTELAKO EKINTZAK→
  - Zonaldeko jaietako antolakuntzan parte hartu
  - Inguruko jaialdiak eta kontzertuak babestu

# KOSTU EGITURA

- **Kostu Finkoak:** Lokalak 720€ hilero kostatuko zaigu. Erreforma egiteko 2000€ behar izango ditugu.
- **Kostu Aldakorrak:** Produktuen ekoizpenaren araberakoak izango dira, baina kalkulatu dugu guztira 1100-1250€ inguru beharko ditugula hilero sukaldea hornitzeko.
- **Bestelako kostuak:** Karaokerako kit-a, bozgailuak eta teklatu eta DJ-set bat erosteko dirua guztira 5000€ inguru kostatuko du.